

# NPEren laguntzak



TEKNOLOGIA  
BERRIAK

AZALAREN  
MONITORIZAZIOA

## HERRITARREN ATARIA

### ■ Online programa

Campaña 2020

Consulta Expediente Control Documental Alegaciones Sigpac Consultas - Informes Gestiones Administrati

Consulta Expediente

Organismo pagador OP Navarra Entidad Colaboradora N° Expediente

CIF/NIF Nombre / Razón Social Primer Apellido Segu

Herritarren atarian honako hauek egin ditzakegu:

- Gure **eskaera bakar**aren espedientea kontsultatu: laguntzaren kalkulua, kontrol administratiboak, monitorizazioaren emaitza...
- **Alegazioak** aurkeztu eskaera bakarrean, helburu hauekin:
  - kontrol administratiboen eta monitorizazioaren in-tzidentziei erantzuteko,
  - espedienteen agiriak aurkezteko,
  - aitortutako esparruak grafikoki eta alfanumerikoki aldatzeko,
  - akatsak jakinarazteko.
- **EIK** (ekoizlea identifikatzeko kodea) eskatu aplikazioetan sartzeko.

### ■ Nola sartu?

Interneten, <https://pac.navarra.es/SgaGpi> helbidean, hauetako bat erabiliz:

- **Ziurtagiri digitala**, edo
- **Cl@ve**, edo
- **IFZ** eta **EIK**.

Eskatzaileak baimenduta, **nekazaritza ganberak** eta NPEa egiteko **entitate laguntzaileek** ere kontsulta dezakete haren informazioa, eta alegazioak aurkez ditzakete haren izenean.

## NOLA IDENTIFIKATU

## APLIKAZIOETAN

### ■ EIK zenbakia

**EIK** kode bakarra eta pertsonala da. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak esleitzen die kodea NPEko eskatzaileei.

Erabiltzaileak bere **EIK** ezagutzen ez badu, bi aukera ditu:

- Eskatzea, **sarentas@navarra.es** helbide elektronikora idatziz edo 848 424 959 telefonora deituz.
- **Herritarren atarian** sortzea, pantailako **zure EIK ahaztu duzu?** aukeran.

### ■ Ziurtagiri digitala

Web-orri honetan eskatu:

<https://www.sede.fnmt.gob.es/certificados>

### ■ Cl@ve

Web-orri honetan eskuratu:

<https://clave.gob.es>

### ■ Laguntzarik behar duzu?

Informazio guztia ondoko honetan:

[http://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Ambito+rural/PAC/controlpormonitorizacion.htm](http://www.navarra.es/home_es/Temas/Ambito+rural/PAC/controlpormonitorizacion.htm)

Kontsultetarako:

**Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua:**

Tel. 848 423 945 / 848 424 959

[inspecciones@navarra.es](mailto:inspecciones@navarra.es) o [sarentas@navarra.es](mailto:sarentas@navarra.es)

**INTIA.** Tel.: 948 013 040

## AZALEREN

## MONITORIZAZIOA

2021eko kanpainatik aurrera, Nafarroako Foru Komunitatean monitorizazioaren bidez kontrolatuko dira NPEko laguntzak eskatzen dituzten azalera.

■ **Zer da?** Eskaera bakarrean aitortutako esparru guztiak automatikoki kontrolatzeko sistema bat da, zeinaren bidez egiaztatzen baita eskatzaileak adierazitakoak eta Sentinel sateliteko irudietan ikusitakoak bat egiten dutela.

■ **Monitorizazioaren emaitzak.** Eskatutako laguntzarako baldintzak betetzen diren ala ez kontuan hartuta, sistemak hiru egoera hauetako bat proposatzen du esparru bakoitzean:

**Berdea:** Egiaztatu da betetzen direla.

**Horia:** Ez dago ebidentzia eztabaida ezinik.

**Gorria:** Egiaztatu da ez direla betetzen.

■ **Intzidentzien jakinarazpena.** Monitorizazioa prebentziozkoa da. Horregatik, intzidentziak (emaitza horiak eta gorriak) eskatzaileari jakinarazten zaizkio, hark konpon ditzan eta ordainketen murrizketak edo zehapenak saihesten dituzan.

Jakinarazpen horiek eskaera bakarra aurkezteko epea amaitu ondoren eta abuztuaren 31 baino lehen eginen dira.

Gutun bidez bidaliko dira, eta, horrez gain, abisuak jaso ahal izanen dira SMS, posta elektronikoko, SGAFot eta beste batzuen bidez.

■ **Nola konpondu monitorizatutako intzidentzia bat?** Abuztuaren 31 baino lehen, eskatzaileak honako hau egin behar du:

- **Argazki** georreferentziatuak eman bere aitortpenaren baliozkotasunari eusteko, SGAFot aplikazioaren bidez.
- **Eskaera bakarra aldatu** lursailaren errealitatera egokitzeko, Herritarren atariaren bidez.

## NPErako ARGAZKIAK EGITEA

### Telefono mugikorreko aplikazioa



#### ■ Nola egin argazkiak mugikorrarekin NPErako?

SGAFot aplikazio mugikorrek errazten du erabiltzaileen mugikorrarekin argazkiak egitea eta administratzaion bidaltzea, eskatzailearen aitortpenaren egiazkotasuna frogatzeko. Honako hauek ahalbidetzen ditu:

- **Argazki** georreferentziatuak egitea.
- **Zuzenean bidaltzea**, dagozkien espediente, esparru eta izapideari lotuta.
- **Argazki** georreferentziatuak kontsultatzea, bidali ondoren.
- **Ibilbideak (trackak)** egitea eta kontsultatzea.

#### ■ Noiz bidali behar dira argazki georreferentziatuak?

- Monitorizatutako intzidentzia bati erantzuteko.
- SIGPACari aldaketa jakin batzuk egiteko eskatu ondoren.

#### ■ Nola deskargatu SGAFot aplikazioa?

Play Storetik deskarga daiteke Android mugikorretarako, eta App Store etik Apple-erako.

#### ■ Nola sartu?

Beharrezkoa da IFZ eta EIK idaztea identifikatzeko.

Nº de expediente: 15000000				
<b>Id línea declaración</b> 59001	<b>Id. Parc. Agrícola</b> 1			
<b>Provincia</b> Navarra	<b>Municipio</b> Oteiza			
<b>Agregado</b> 0	<b>Zona</b> 0	<b>Poliígono</b> 3	<b>Parcela</b> 124	<b>Recinto</b> 1
<b>Producto declarado</b> Trigo Blando		<b>Variedad</b> Sin Variedad		
<b>Superficie declarada</b> 1,59 ha		<b>Superficie SigPac</b> 1,59 ha		
<b>Delimitación Gráfica</b>				
<b>Fotos Georreferenciadas</b> 0 +				
No hay ninguna foto asociada al recinto. Pulse información si desea saber como realizar fotos				
<b>Tracking</b> 0 +				

## NPE ESPEDIENTEAK

## KONTSULTATZEA



### Telefono mugikorreko aplikazioa

SGA@pp aplikazio mugikorraren bidez, eskatzaileak uneko espedientea izapidetzeko faseak kontsultatu ditzake, bai eta 2015etik aurreko laguntza-eskaerei buruzko informazioa ere.

#### ■ Honako hauek kontsulta ditzake:

- **Datu orokorrak, eskatutako laguntzak eta espediente elektronikoak.**
- **Aitortutako esparruak eta aitortpen grafikoa.**
- **Kontrol administratiboaren emaitzak.**
- **Laguntzen zenbatekoen kalkuluak.**
- **Aurkeztutako argazki georreferentziatuak.**
- **Monitorizatutako kontrolen emaitzak.**

SGAFot aplikazio mugikorrerako sarbidea ematen du, argazki georreferentziatuak egiteko.

#### ■ Nola deskargatu kontsulta aplikazioa?

Play Storetik doan deskarga daiteke Android mugikorrarako.

#### ■ Nola sartu?

Beharrezkoa da IFZ eta EIK idaztea identifikatzeko.

